

Hizkuntza-faktorea analisi ekonomikoan.

Hizkuntza gutxituak aztertzekeo ekarpen berriak

Jose M. Zendoia Sainz
EHUko irakaslea

Zientzia Ekonomikoak bere analisisetan erabiltzen dituen faktoreen artean, hizkuntza ez da gehiegitan hartu aldagai gisa, hainbat eremutan eragina izan badezake ere, kanpo merkataritzan, langileen produktibitatean edo enpresen kudeaketan, besteak beste. Artikulu honetan, gai honen inguruko berrikuspen bibliografiko bat egin ondoren, gizarte elebidunetan eta hizkuntza gutxituen kasuan, ekonomiarekin lotutako hainbat ikerketa-lerro proposatzen dira.

Between the factors used by Economic Science in its analyses, language has not been often taken into account, in spite of its consequences in some fields, like foreign trade, labour productivity or enterprise management, for instance. In this article, after a bibliographic reviewing in this subject, we propose some research lines linking economics with bilingual societies and minority languages.

1. Sarrera gisa

Hizkuntzarekin eta ekonomiarekin lotutako lana da hemen aurkezten dena, bi helburu nagusirekin: alde batetik, Zientzia Ekonomikoan aldagai linguistikoak izan duen tratamendua berrikustea eta, bestetik, tratamendu hori kontuan harturik, hizkuntza gutxituak aztertzeko ikuspuntu berriak proposatzea. Bi kontzeptu zabal horiek, Hizkuntza eta Ekonomia, nola uztartzen diren azaltzen saiatuko gara. Horretarako, kontzeptu horiei dagozkien definizioetako batzuk erabiliko ditugu, ikusi ahal izateko zein diren bien arteko elkar puntuak. Geure hizkuntzan ditugun hiztegi entziklopedikoak begiratuta, ondoko definizioak topatzen ditugu:

Hizkuntza:

- «Giza talde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten hitzezko adierazpidea». (*Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*).
- «Giza talde batek elkarrekin komunikatzeko duen hitzezko adierazpidea». (*Lur Hiztegi Entziklopedikoa*)

Ekonomia:

- «Gizarteko ondasunen produkzio, banaketa eta erabileraren inguruko gizarte-erlazioen multzoa; erlazio horiek aztertzen dituen zientzia». (*Harluxet H.E.*).
- «Herrialde, eskualde, giza talde edo enpresa baten ondasun materialen multzoa. II Ondasunen balioen antolamendua, funtzionamendua eta garapena arautzen duten arauen eta printzipioen multzoa eta horiek aztertzen dituen zientzia» (*Lur H.E.*).

Noski, bi hitz horietarako beste definizio asko topa ditzakegu, eta zenbat eta iturri espezializatuagoetara jo, are eta informazio sakonagoa jasoko dugu, baina gure hurbiltze-fase honetarako, definizio orokor horiek jarraitzeko ildo bat ematen digute. Bi definizioetan azpimarratu ditugun hitz komunak ondokoak dira: gizartea edo giza taldea, alde batetik, eta erlazioa edo elkarren arteko komunikazioa, bestetik; alegia, giza taldeetako kideen arteko erlazioan hizkuntza eta ekonomia aurkitzen direla izango litzateke lortu dugun lehen ondorioa.

Hain zuzen ere, edozein gizartetako kideen arteko harremanak funtsezkoak dira gizarte horren garapenerako. Harreman horien artean garrantzi berezia dute kutsu ekonomikoak dutenek, horien ondorioz lana antolatu, ondasunak sortu eta trukatu, hainbat eta hainbat zerbitzu eskaini eta aberastasuna banatzen baita, besteak beste. Pertsona eta erakundeen arteko erlazio ekonomikoak (beste harreman gehienak bezala) parteek ezagutzen duten hizkuntza batean edo gehiagotan burutzen dira. Horregatik guztiagatik esan dezakegu hizkuntzak zeregin nagusia betetzen duela gizarteen garapen ekonomikoan. Horretaz gain, gaurko ekonomia aurreratuetan hizkuntzak berak negozio-arlo berezi bat osatzen du.

Beraz, badugu hurbilketa honetan ideia orokor bat: hizkuntzak eta ekonomiak komun dauzkaten elementuen artean, gizarte bateko kideen arteko (eta gizarteen arteko) erlazioak daudela.

Jakina denez, munduan zehar hizkuntza ugari dago bizirik, baina gizarte desberdinetan erabiltzearen ondorioz, egoera desberdinetan daude. Zein lotura mota aurki dezakegu ekonomiaren eta hizkuntzaren artean? Eta nolakoak dira erlazio horiek euskara bezalako hizkuntza gutxitu bati dagokionez?

Garapen ekonomikoaren eta hizkuntza gutxituen erabilpenaren zein estatusaren arteko erlazioen azterketan erreferentzia den François Grinek dioenez, erlazio hori gai konplexua eta gutxi aztertua izan da (Grin 1995), eta ikerketarako zenbait proposamen egiten ditu: erregio-ekonomiaren inguruko gaiak jorratu (zentro-periferia arazoak, enpresen kokapen geografikoa, azpiegiturak, eta abar) hizkuntza gutxituen problematikara hurbiltzeko. Besteak beste, hizkuntza gutxituen eskariaren garrantzia azpimarratzen du beharrezko baldintza gisa (ez baldintza nahiko moduan), hizkuntzaren promoziorako plangintzak burutzeko.

Horietaz gain, bestelako gaiak ere identifika daitezke: hizkuntz komunitateen egitura sozioekonomikoa Euskal Herriko kasuan, teoria ekonomikoaren ekarpenak hizkuntzaren eta elebitasunaren gai hauen inguruan, hizkuntzaren industria sektore ekonomiko gisa ikusita, euskararen garrantzia jarduera ekonomikoan eta euskararen sustapenerako aurrekontu publikoen bilakaera.

2. Hizkuntzalaritza eta ekonomi zientzia

Aurreko atalean esan dugu hizkuntzaren eta ekonomiaren arteko elkargunerik zabalena zein den: pertsona eta herrien arteko erlazio/komunikazioa. Esparru zientifikoago batera pasatuko gara: hasieran hartu ditugun bi kontzeptu zabalak (hizkuntza eta ekonomia) lantzen dituzten zientziak Hizkuntzalaritza eta Ekonomi Zientzia dira, hurrenez hurren.

Hizkuntzalaritza eta Ekonomi Zientzia, bakoitza bere aldetik, zientzi esparru oparoak dira azken hamarkadetan, ezaguna denez. Hainbat atal eta azpiataletan banatuta, ikerketa-lanak ugariak dira bi zientzia horietan. Dena den, bi zientziak elkarrekin lotzeko ikerketak ez dira hain ugariak. Bibliografia aztertzen badugu, Hizkuntzalaritza eta Ekonomiari buruzko lehen artikulua Marshackena da, 1965. urtekoa¹, eta antzeko lanak ez dira maiztasunez agertzen 80ko hamarkadara arte. Gaiaren muinarekin lotura handiagoa duten lanak Soziolinguistikaren alorretik datoz, azken hau jakintza-arlo berria izanik ere.

Noski, bai Hizkuntzalaritzak eta bai Ekonomi Zientziak azpiatal edo adar nagusi batzuk dituzte. Non koka daiteke esku artean dugun gaia, alegia, Hizkuntza gutxituen eta Ekonomiaren arteko lotura? Gure esparrua mugatzen joateko, kon-tuan hartuko dugu aipatutako erreferentziako bi zientzia horiek badutela enbor teoriko bana alde batetik, eta teoriaren aplikazioak errealitatean, gizartean, ger-tatzen diren fenomenoak interpretatzeko. Hortaz, batetik Hizkuntzalaritza teorikoa eta Hizkuntzalaritza aplikatua, eta bestetik Teoria Ekonomikoa eta Ekonomia Aplikatua bana ditzakegu.

1. Coulmasek (1992) dena den, grekoengandik hasi eta historian zehar hainbat pentsalarik hizkuntzaren eta ekonomiaren inguruko kontzeptuak nola lotu izan dituzten azaltzen du. Askotan errepikatu izan den ideia, adibidez, hizkuntza eta monetaren arteko alderaketa da, biek gizakien arteko elkartrukeetarako duten tresna-funtzioagatik.

Chaudenson eta Robillarderen ekarpenean oinarrituz (1990), gorago adierazitako lau esparruak gurutzatuz gero, honelako eskema bat edukiko genuke:

HIZKUNTZA ETA EKONOMIA	TEORIA EKONOMIKOA	EKONOMIA APLIKATUA
HIZKUNTZALARITZA TEORIKOA	Bi zientzien arteko erlazio kontzeptualak	Hizkuntzalaritzaren garrantzia jarduera ekonomikoan
HIZKUNTZA ERABILIA	Terminologia. Hizkuntzaren erabilpen ekonomi zientzian	Hizkuntza erabiliaren garrantzia jarduera ekonomikoan

Euskarak eta euskalgintzak euskal ekonomian betetzen duten lekua aztertu nahi badugu edo, oro har, hizkuntza gutxituen eta ekonomiaren arteko loturak badira gure interesgunea, ematen du goiko taulan azaltzen diren behealdeko bi esparruak direla sakonago arakatu behar direnak, alegia, Hizkuntzalaritza Aplikatuari dagozkionak. Beste bi esparruak, Hizkuntzalaritza Teorikoarekin lotutakoak, ez dira lan honetan aipatuko, oso zeharka ez bada behintzat², besteak beste ekonomialari bat, bere kasa lan eginda, mundu ezezagun batean sartuko litzateke eta.

Hizkuntzak, hala Teoria Ekonomikoan nola Ekonomia Aplikatuan dituen eragin, zeregin, inplikazio eta abar dira ondoren aipatuko direnak lehen urrats batean, aurrerago hizkuntza gutxituen eta ekonomiaren arteko erlazioak aztertu aurretik.

3. Hizkuntza eta ekonomia (berrikuspen bibliografikoa)

Gai honen inguruan azken urteetan egin diren zenbait ekarpen teoriko aipatuko ditugu hemen. Esan dugun bezala, gaia horren zabala izanik, ekarpen hauek oso helburu desberdina dute, eta metodologia diferenteak ere bai.

Egia esan, Europako hizkuntza gutxituei buruzko lanak oso ugariak dira, eta aski ezagunak gurea bezalako hizkuntz komunitate batean, non antzeko esperientziei buruzko informazioa aspaldidanik arreta bereziaz jarraitu izan den. Mota honetako informazio guztia hain oparoa izanik, ekonomiarekin zerikusia duena ondo aukeratzea zaila da bi arrazoi direla medio: soilik arlo ekonomikora mugatzen bagara, ekonomialari garen heinean, ezer gabe geratzeko arriskua dugu, hizkuntza gutxituen problematika esfera soziolinguistiko eta politikoan erabat txertatuta dagoelako; baina, arrazoi berberagatik, ekonomiak gizarte harreman

2. Horrelako lan baten adibidea aipatzearen, ikus Daoust (1991). Bertan adierazten da jarduera ekonomiko desberdinetan erabiltzen den terminologian zein eragin duen hizkuntz komunitate batekoa ala bestekoa izateak, eta hizkuntz politikak hizkuntzen corpusean eduki ditzakeen ondorioak, Quebecoko kasuan.

guztiak ukitzen dituzenez, problematika horren azpiatal guztiak ere ekonomiarekin lotuta ikus ditzakegu eta, ondorioz, mugaezinezko informazioa edukiko genuke.

Gure arazoa orduan ondokoa da: hizkuntza gutxituei buruzko idatzi eta ikertutako guztia interesgarria izanik ere, zientzia ekonomikoarekin “nahiko” lotuta dagoena aukeratu behar izatea. Hurrengo lerroetan aipatuko ditugun lanak Hizkuntzak eta Ekonomia gai zabal horretako atal orokorrenen ingurukoak dira.

Coulmasek (1992), *Language and Economy* izenburu argigarria duen liburuan azaltzen dizkigu historian zehar, eta grekoetatik hasita, hainbat pentsalarik hizkuntza eta ekonomia erlazionatuz egindako zenbait aipamen. Bilduma-lan horretaz gain, Coulmasek oso ekarpen zabalak eta osatuak egiten du esku artean dugun gaiaren inguruan. Arestian aipatu ditugun Hizkuntzalaritza eta Ekonomiaren arteko gurutzaketa haien guztien inguruko hausnarketak egiten dira³. Liburuan dauden baieztapenetatik bat ekarriko dugu orain hona, bertatik abiatuz ulertu behar baita gurea bezalako lan baten kokapena:

Nazio Batuetako sei hizkuntza ofizialen nagusitasunak ez dakar haien nagusitasuna erregio-mailan. Hizkuntza erregionalak beren artean gara daitezke, eta zenbait baldintzatan, zabaldu ere egin daitezke hizkuntza ofizialak baino indar handiagoz, hizkuntz beharretarako egokiago direlako. Auzi honetan, beste behin ere erregio barneko merkatua –mundu osoko merkatuaren oposizio gisa–, eta lan-merkatuaren mugikortasun-beharra dira faktore kritikoak.

Hizkuntzak arlo ekonomikoan duen papera aztertzeko, Rossi-Landik ekarpen bikain bat egiten du, beti ere ikuspuntu marxista erabiliz. Hizkuntza, edo hobeki esanda, hitza, gizakiaren lanaren emaitza da. Egile horren iritziz, «gizakia lan eta hitz egiten duen animalia da (hori izanik gainerako animaliekin bereizten duen ezaugarria), tresnak eta hitzak osatuz ondasun eta perpausak lortzen dituena, eta ekoizpen horrek, gizarte-produkzioak hain zuzen ere, historikoki gizakia bera berregiten du» (1983: 36). Saussure-ren Hizketari dagokionez⁴, gizabanakoek egindako ekarpen moduan ulertzen du, baina eragiketaren eredu soziala dela azpimarratuz, azken finean, hizketak balioa edukitzeko, bera erabiliko duen giza talde bat behar baita. Marx eta Engelsen hitzak aipatzen ditu, non hizkuntza pribatuaren (hizketa edo *parole* delakoaren zentzuan hartuta) kontraesankortasunaz mintzatzen diren. Era berean, hizkuntzaren jabetza pribatuari buruzko ekarpena egiten du: bere ustez, komunikazioaren merkatu linguistikoan, klase gidariak hizkuntzaren jabetza pribatua hiru dimentsiotan eduki dezake: kodifikazioaren kontrolean, mezuen zirkulazio-kanalen kontrolean eta interpretazioaren eta dekodifikazioaren kontrolean.

Ikuspegi marxistatik polemika ugari sortu zituen N. Marr-en teoriak ere⁵: honen arabera, hizkuntza produkzio-erlazioen sistemak sortutako gainegitura da. Eztabaida sakonenak teoria hori muturreraino eramatean sortu ziren: egia balitz,

3. Ikus aurreko puntuko taula (Hizkuntzalaritza eta Ekonomia).

4. Saussure hizkuntzalariren ekarpen nagusietakoa hizkuntza/hizketa (*langue/parole*) bereizketa da: Hizkuntza sistema bat da, eta Hizketa, sistema hori erabiltzean gizabanako bakoitzak sortzen duen hizkuntza-aldaera.

5. Ninyolesek aipatua (1975: 34).

Moskuko eta Pariseko proletarioek elkarri hobeto ulertuko liokete, Parisko proletarioek eta burgesek baino.

Ideologia-sistemak aipatzen ari garenez, hona zer dioten elebitasunaren eta hizkuntz gatazken ikerkuntzan goi-mailako aditua den Joshua Fishmanek (1989):

Elite kapitalistek hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduak gaitzetsi egin dituzte (Espainia edo Frantzia edo Britainia Handiko zenbait eskualdetan adibidez) konspirazio komunistak direlakoan. Elite komunista burugorrek hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduak gaitzetsi egin dituzte (Kroazian edo Ukrainan adibidez) konspirazio kapitalistak direlakoan. Soziologo "neutroek" hizkuntzen aldeko mugimenduei eraso egin diete, atabismo chauvinista eta atzerabideko zibilizaziorik-eza direlakoan, [...]. Benetakotasun-gogoia bideratuz eta erabiliz, modernitatea sustatu eta erdiesteko saioak izaten dira normalean hizkuntzen aldeko mugimenduei lotzen zaizkien faktoreak.

Cassonen ustetan (1996), Ekonomiak eta Antropologiak ikerketarako antzeko esparru bat dute: gizartearen harreman ekonomiko eta sozialak egituratzeko erakundeen izaera. Hala ere, ekonomialari eta antropologoaren artean ez da lan bateraturik egin. Cassonek diziplina bi horien diferentziak azaltzen ditu eta, batez ere, interesgarria da Ekonomian gizabanakoen jokaerak barneratzeke dauden mekanismoen azalpena.

Antropologiari lotutako eremuak modelizatzeko, Teoria Ekonomikoak eduki ditzakeen baliabideak agertzen ditu, eta egindako saiakerak aipatu: Jokoen Teoriaren potentziala gizarte-zientziak bateratzeko, adibidez.

Hala ere, Ekonomiaren ahulezia litzateke bere teoriaren malgutasuna behar beste erabili ez izana, profesionalen irudimen faltagatik. Hortaz, badaude analisi egoki bat egiteko erronkaz Ekonomiak heldu ez dien zenbait arlo garrantzitsu. Salbuespenak salbuespen, oraindik teoria ekonomikoak badu hutsune nabari bat Ekonomia zeri aplikatu behar zaion eta zeri ez zehazteko.

Horren ondorioz, egilearen ustetan ohiko Ekonomiak predikatzen dituen hizkuntza komun bat eta lege-erakunde eraginkor bat edukitzeko beharrak islatzen du Ekonomiak daukan gizarte aurreratuak ikertzeko joera, adibidez. Baldintza horiek suposatzen dute lanaren banaketa sofistikatu bat era inpersonalean ezar daitekeela. Hizkuntza bakarra edukitzeak bermatzen du ez dela gertatuko pertsonen arteko ulertezintasunagatiko koordinazio-akatsik, eta lege-sistema formal bat edukitzeak, berriz, sistemak behar bezala jardungo duela, pertsonen arteko gatazken gainetik.

Baina hori guztia mendebaldeko kultura inposatzailearen ondorioa da. Kultura horren elementurik baliotsuenak erabili ahal izateko, erabaki behar da zeintzuk diren benetako muina –mundu osoan onargarriak direlako– eta zeintzuk ez, bai eta hizkuntza bakar baten onarpenak ere, zeren lege-sistema komun baten existentziak azken horietakoak baitirudite. Ekonomialariek ez dituzte bi baldintza horien lasaitzearen ondorioak behar bezala ikertu.

David M. Levyk (1997), Adam Smithen lanetako ideiak berreskuratzen ditu: «gizakiak merkataritzan aritzen gara hizkuntza dugulako, gainerako bizidunak ez,

hizkuntzarik ez dutelako». Merkataritzak berak hizkuntza berriak sortzen ditu, *pidgin* deiturikoak. *Pidgin*ak sortzeko prozesua honelakoa litzateke: hizkuntza arruntek hiztegi bat dute bai eta hiztegi horren gainean egindako inflexioak (deklinabidea eta aditz-jokoak) ere. Haurrek biak batera ikasten dituzte, baina helduentzat askoz ere errazagoa da hiztegia ikastea hitzen inflexioak baino. Horregatik, bi naziok elkarrekin nahasi beharra dutenean, «bai konkista baten ondorioz, bai migrazioen eraginez», bi nazio horietako biztanleek elkarri ulertu ahal izateko hizkuntza berria sortu ohi dute (*pidgina*), hiztegi aberatsa edukiko duena baina inflexio gutxikoa. Ondorioz, dimentsio handiko problemei heldu beharrean, dimentsio txikiko problemen sekuentziak optimizatzen dira.

Hizkuntz aukeraketa arrazionalen badago elementu arrazional nabari bat: lanaren mugimendu-kostuak gutxitzen direnean, gurasoak konturatzen dira seme-alabek beren hizkuntzan baino soldata handiagoak irabaz ditzaketela mundu-mailako hizkuntza batean. Baina horren nabaria ez den beste prozesu bat gertatzen da hizkuntzaren heriotza bidean: hizkuntzak hil aurretik *pidgin* bihurtzen dira. Gurasoek erabakitzen dutenean haurrak mundu-hizkuntza batean sartzea, hurrei hizkuntza horretan hitz egiten diete, nahiz eta horretan gaitasun naturalik ez izan. Umeen gaitasuna gurasoen hizkuntzan ahulduz doa; hitzak desagertzen dira eta gramatika aldatu egiten da. Honen harian, Dorianen hitzak aipatzen ditu Levyk: hizkuntza hiltzen doanean, akastun hiztunen talde bat sortzen da, etxeko hizkuntzan nahikoa murgildu ez dena edota beste hizkuntzaren batean askoz gehiago murgildu dena; eta etxeko hizkuntza erabiltzen jarraitzen badute ere, benetako hiztunen arauetatik urrun egiten dute.

Aldaketa horiek modu arrazionalen egin direla aipatzen da behin eta berriz, artikuluan bertan ere Smithen hitza gogoratzean, konkista hitza aipatzen zela ahaztuta: ez dugu uste indarkeriaren ondorengo erabakiak arrazionalak direnik.

Levyren artikulua onorioetan erantzun gabeko zenbait galdera daude: Estimatu al dezakegu umeak mundu-hizkuntza batera aldatzeko zein den soldata-igoeraren elastikotasuna? Hizkuntzak moneta-eremuak bezalakoak direlako ideia erabil al dezakegu? Hizkuntz gaitasuna diru-sarrerara eta hezkuntzarekin batera aldatzen bada, eta diru-sarrerak hizkuntz gaitasunaren ondorioz aldatzen badira, ezin al da azalpen ekonomiko bat egin? Galdera interesgarriak, noski...

Enpresen antolaketaren arloan, Peadar O'Flathartaren ekarpena aipatu nahi dugu (1995): berak dioenez, erakundeak antolatzeke lehen ereduak paradigma "mekanikoaren" araberakoak ziren, non pertsona bakoitza osotasunaren osagai mekaniko bat baizik ez den. Ondorengo paradigmak "organismoa" hartzen du osorik, eta bertako partaide bakoitzari bere nortasunaren garrantzia aitortzen zaio, besteak beste, ezaugarri kulturalak eta linguistikoak aipatuz. Azken aldian indarra hartzen ari den paradigma "eboluzioan" oinarritzen da, eta antolaketa-sistemak egoera berrietara egokitzen dira: gizabanakoen izaera eta ezaugarri-multzoa da aldaketarako agente potentziala.

Hizkuntza gutxituen eremuetako enpresek eta enpresa-hezkuntzak kontzeptu horiek guztiak erabili behar dituztela aipatzen du Flathartak, paradigma berriek aukera zabalagoak ematen dizkietelako mehatxatuta dauden kultur komunitateei; gehiegitan ikusi baita enpresa eta erakundeen antolaketa manipulazio eta kontrol

gisa eta, ondorioz, kultura nagusiaren esku utzi baita. Egilearen ustez, etorkizuna kulturen arteko antolaketa-sisteman oinarrituko da:

Kultur diferentziak ez dira kulturen arteko negozioak egiteko trabatzen hartu behar; aldiz, kultur diferentziak konkurrentziarako abantaila-iturri gisa hartu behar dira. Horrela, hizkuntza gutxituetako komunitateak elementu positibo moduan ikusiak izanen dira, eta kultur aniztasunari beren ikuspuntu eta sinesmen propioak erantsiko dizkiote: berrikuntzan, enpresaritzan eta konkurrentzia-abantailatan baliabideak jarriko dituzte, eta komunitate osoaren ongizate ekonomiko eta kulturalaren iturri izango dira (Flatharta 1995: 28).

Adibidez, nazioarteko marketing-aldizkarietan askotan errepikatzen dira ondoko bi jarrerak: alde batetik, egile batzuek hizkuntza desberdinetan aritu behar izateak sortzen dituen eragozpenak aipatzen dituzte, baina, beste aldetik, hizkuntz aniztasuna aberastasuna dela onartzen dutenak ere badaude. Hizkuntz aniztasuna traba gisa hartzen dutenentzat, ingelesa bihurtu beharko litzateke merkataritza-hizkuntza bakar⁶; besteentzat, berriz, talde linguistikoko asko daudela datu objektibo eta epe laburrean aldaezina da eta, ondorioz, merkataritzan sartu beharreko aldagaia izanik, ahalik eta etekin handiena ateratzea dute helburu⁷. Are gehiago, globalizazioaren efektuaren aurkari gisa azken hamarkadetan kultur aniztasunean oinarritutako merkataritza-metodoak ugaltzen hasi dira, *cross-cultural management* izenez ezagutzen den diziplinaren bidez⁸.

Noski, hau guzti hau ekonomiaren globalizazioari lotutako analisietan azaltzen da. Hain zuzen ere, azken urteetan hainbeste aipatzen den globalizazioa (ekonomiarena zein beste mailetakoa: kulturala, komunikabideena, eta abar) oso lotuta dago hizkuntzen arteko auziari. Gorago aipatutako bi indarrak aldi berean nabaritzen ditugu: ingelesa hizkuntza nagusi bakarra izateko bideratutako joera, eta hizkuntzen arteko itzulpen-industria zein hizkuntzen irakaskuntzan egindako inbertsioetan bideratutakoa.

Lehen joeraren helburua hizkuntz aniztasunak sortutako trabak eragozte da, nazioarteko merkataritza-kostuak txikiagoak izateko; bigarrenarena, berriz, hizkuntz aniztasuna kontuan harturik, aniztasun hori bera aberastasun-iturri bihurtzea. Kontuan hartu behar da, gai hau aipatzean, globalizazioarekin batera estatu berrien eraketa gauzatzen ari dela, hau da, nazioarteko esparru politikoan aldi berean bi prozesu garatzen ari direla: mundu osoan zehar kapitalaren hedapenak sortutako nolabaiteko uniformizazioa, eta dibertsifikazio handiagoa, batez ere Sobietar Batasuna desagertu ondoren hasitakoa.

Gainera, batak zein besteak mundu-potentzien babesa dute, hein batean behintzat: globalizazioa beharrezkotzat ikusten den aldi berean, gobernuak onartu behar izan dute kultur aniztasuna gorde beharreko balioa dela –adibidez,

6. Adibidez, Posch Roberts (1994). *Direct marketing* aldizkarian argitaratutako artikuluari izenburu hau jarri zion: "Why English is and will be the language of commerce?"

7. Esaterako, M. Barrier (1994). *Nation's Business* aldizkarian idatzitako artikuluan dioenez, EEBB-etako enpresa txikiak abantaila dute handien aldean, beren malgutasunagatik ingelesez mintzatzen ez diren herrialdeetara iristeko gaitasun handiagoa dutelako.

8. Malhotra, Agarwal eta Petersonen artikuluan (1996) aipatzen denez, gai honi buruzko 720 artikulua espezializatu idatzi ziren 1980 eta 1990 urteen artean.

Europako Batasuneko gutxiengo kulturalak babesteko neurriak, edota Ekialdeko Europako estatu (nazio) berrien onespena—. Hala, politikari eta agintarien adierazpenetan bi xede horiek ikusten ditugu behin eta berriz, nazio-ekonomiak mundura ireki beharra garapen-prozesutik at ez geratzeko, eta bakoitzaren berezitasun propioak mantendu beharra, kultur aniztasunaren aberastasuna ez galtzeko. Egia da batzuetan horrelako jarrera bikoitza defendatzean kontraesanak sortzen direla: esaterako, Espainia eta batez ere Frantziako estatuetakoko goi-agintarien artean, mundu-mailan kultura espainiar eta frantziarraren iraupena lehen mailako helburua izanik, estatu barneko kultur eta hizkuntz pluraltasuna herriaren presioaz mantentzen da gehienbat.

Dena den, agerian geratzen dena zera da: ekonomia baterakorraren aldeko joerak ingelesa hizkuntza instrumental nagusi bihurtzen duen era berean, inork gutxik onartzen duela horren ondorioz gainerako hizkuntzak desagertu behar direnik.

Zenbait lanetan (Coulmas 1992, Breton eta Mieszkowski 1977), hizkuntza pertsonen arteko komunikaziorako tresnatzat hartzen da, eta tresna izate hori da ekonomiarekin lotzeko balio duena. Pertsonen arteko harremanen artean, zuzenean ala zeharka, harreman ekonomikoak asko dira, eta ez bakarrik salerosketak edo lan-harremanak: unibertsitatera doan ikasleak matrikula ordaindu behar du eta irakasleak kobratu egiten du, hori guztia hizkuntzaren bitartez egiten den ideia-trukaketa baten orde. Horrela uler daitezke hainbat eta hainbat komunikazio-mota ere: ez dirudi telebista-programa bat, edo kantaldi bat harreman ekonomikoak direnik, baina, alde batetik, balio ekonomiko bat dute eta, bestetik, komunikazioaren euskarria hizkuntza da.

Hizkuntza eta ekonomiaren arteko erlazioan, ikuspegi zehatz bat azaldu dugu aurreko paragrafoan, ikuspegi ekonomizista deitu dezakeguna, non hizkuntzaren papera, pertsonen ahalmen ekonomikoaren osagarri bat den, giza kapitalaren osagaia. Badago beste ikuspegi bat, etnizista deiturikoa, eta planteamendu horretan, hizkuntzaren ezaugarri nagusia pertsona bat bere hizkuntz taldearen kide egitea da. Horretan oinarriturik, hizkuntz taldeak subjektu bezala hartuta, komunitate horien artean gertatzen diren harreman sozioekonomikoak azalduko genituzke. Planteamendu horretan klase sozialen arteko dialektika erabiltzen da, eta metodologikoki hizkuntz komunitateak klase sozialekin parekatzen dira. Horrelako lehen ikerlanak Quebecen eta EEBBetan egin ziren, azken kasuan komunitate hispanoaren eta anglofonoaren arteko harreman ekonomikoak aztertze⁹.

Ikuspegi emankorrena aurreko bien, hau da, ikuspegi ekonomizista eta etnizistaren arteko bilgunean dagoela dirudi. Alegia, norberaren berezko hizkuntza (normalean ama-hizkuntza izango dena, baina pertsona bakoitzak aukeratutako beste edozein ere izan daitekeena), komunitate linguistikoki bati, eta zentzu zabal batean, nazio bati lotzeko balio duena da; eta, horretaz gain, pertsona horrek


9. Adibidez, Grinek (1990) bibliografian aipatzen dituen ondoko bi artikuluen izenburuak adierazgarriak dira: "Language as human capital; theoretical framework and application to Spanish speaking Americans" (Grenier, 1982), eta "Une analyse économique de la disparité inter-éthnique des revenus" (Raynold eta Marion, 1972).

ezagutzen dituen gainerako hizkuntzak bere giza kapitalaren osagarriak dira, bere komunitatetik gairako harremanak edukitzeko ahalmena ematen diotenak. Ez dugu ahaztu behar, noski, edonoren lehen hizkuntza ere bere giza kapitalaren osagaia dela.

Hizkuntza instrumentalaren definizioa ere honela mugatu dezakegu: pertsona batek lehen hizkuntza jakin bat jakiten du, normalean bere sorterriaren arabera, eta, horretaz gain, beste hainbat hizkuntza jakin ditzake (hizkuntza instrumentalak) nazioarteko komunikazio-sareetan parte hartzea bermatzen diotenak.

Alderdi psikosoziolinguistik, hizkuntzaren zereginak zenbait alor gainjarritan zabaltzen dira (Sánchez Carrión 1991). Hala, hizkuntzaren lehen balioa gizabanakoen nortasuna finkatzea da, eta, ondoren, familiarekiko lotura bermatzea. Hurrengo zeregina inguruko komunitatearekin harremanetan jartzea izango litzateke, eta komunitatea bera trinkotzea. Ondoren, hizkuntzak lanerako ahalmena ematen dio pertsonari, hau da, gizartean bizi ahal izateko baliabideak lortzeko aukera eta gizarte-mekanismoan estatus duin bat edukitzeko aukera –aurreko paragrafoetan adierazi ditugun ñabardurez–. Azkenik, gizabanakoarentzat, hizkuntza nazio bateko kide izateko tresna da, eta, azkenik, nazioarteko joko kultural, ekonomiko edota politikoa identitate kolektibo bat edukitzeko mekanismoa.

Aurreko funtzio bakoitza, hurrenez hurren, gizarteko talde geroz eta zabalagoi lotuta dagoela kontuan harturik, modu eskematiko batean honela adieraz genezake hizkuntzaren funtzioen arteko erlazioa:



Txepetxen aurkezpenen baieztazen da hizkuntzak lehen bost funtzioak betetzen ez dituen artean ez duela iraupena ziurtaturik. Aurreko eskeman, lehen bost zirkuluek adierazten dituzten funtzioetara iristen ez den bitartean, hizkuntza galzorian legoke.

Halaber, Txepetxek dio euskarak (euskaldunek osatzen duten komunitatean) lehen lau funtzioak betetzen dituela, hau da, euskaldunentzat egoera intimoetarako hizkuntza dela, euskaldunetzat famulietan erabilia dela, bai eta lagunartean eta lanean ere. Euskal nazioan, berriz, ez dela hizkuntza normalizatua dio, Euskal Herrian euskaldunek ezin dutelako haren erabilpen osoa burutu. Dena den, eta lan-munduan euskararen erabilpena neurtzeko ahaleginek erakusten dutenez, euskara ez da laneko komunikazioetan erabiltzen den hizkuntza, ezta euskaldunetzat soilik osatutako enpresetan edo enpresa-arloetan ere¹⁰.

Kasu orokorrari jarraituz, kontuan hartzen badugu pertsona batek bere garen indibidualerako zein kolektiborako beharrezkoa duela engranaje ekonomikoan parte hartzea, horretarako hizkuntzak ematen dion baliabidea elementu psikologiko edo soziologiko soil bat baino garrantzitsuagoa da. Hortaz, hizkuntza gutxitu bateko hiztunarentzat eragozpen handia da hizkuntza nagusi bat erabili behar izatea lanerako, ez bakarrik bere eskubide linguistikoak urratzen direlako, baizik eta bere estatusa gizartean mugatuta gera daitekeelako erlazio ekonomikoetarako baldintza okerragoak jasan behar dituen unetik.

4. Hizkuntzak eta hitzkuntza gutxituak

Miquel Siguanen (1996) sailkapenaren arabera, eta Europari buruz ari bagara, gaur eguneko estatu independenteetan ofizialak diren 34 hizkuntza daude, horietatik 13 Europako Batasunean. Beste 3 hizkuntzek koofizialtasun-maila dute beren eremu geografikoetan —edo zatiren batean, behintzat— (galiziera, katalana eta euskara, hain zuzen), eta bestelako hizkuntzak, hau da, ofizialtasunik gabekoak, nahiz eta nolabaiteko errekonozimendua izan, 9 dira Europako Batasunean daudenak, eta beste 6 EBtik kanpo (Dagestango kasuan, 200.000 hiztunetik gorakoak soilik zenbaturik). Guztira, 52 hizkuntzako multzoa Kaukaso eta Uraletatik Atlantikoraino bitartean. Europako hizkuntz taldeen sailkapena, hedapena eta beste zenbait ezaugarri ikusteko Josu Tellabideren “Europa, etnia eta herriak” mapa ere kontsulta daiteke (1990).

Horretaz gain, horietako zenbait hizkuntza estatu batean baino gehiagotan mintzatzen dira, baina kasurik gehienetan errekonozimendu desberdinaz, lekutik lekura. Hau da, hizkuntza berak ofizialtasuna eta nagusitasuna eduki dezake eremu jakin batean, babestua eta gutxitua izan beste eremu batean, eta inolako errekonozimendurik gabekoa izan hirugarren eremu batean.

Dena den, Europako hizkuntz aniztasuna oso urria da gainerako kontinenteetan gertatzen denarekin alderatuta. Hala, munduan 3.500 - 4.000 hizkuntza inguru daudela uste da (Siguan 1996), horien artean gehienak Asian, Afrikan eta Amerikan. Badaude beste zenbait zenbatespen: R. Bretonen arabera (1983), munduan 2.900 hizkuntza inguru daude, populazioaren % 43k horietako lau hitz egiten duelarik (txinera, hindiera, ingelesa, gaztelania), % 20k beste zazpi hizkuntza, % 14k beste hamabi, eta % 23k gainerako 2.875 hizkuntzak, hauek denak 30 milioi hiztunetik beherakoak; Ethnologue-k¹¹ 6.700 hizkuntza eta 39.000 dialekto

10. Beraz, euskaldunen komunitatean soilik lehen hiru funtzioak egongo liriateke ziurtaturik, eta, ondorioz, euskararen iraupenerako baldintzak Txepetxek aipatzen duena baino okerragoak liriateke.

11. Barbara F. Grimes (editor), (1996): *Ethnologue*, 13th edition.

aipatzen ditu, horietako askotako hiztun-kopurua ehun pertsona baino gutxiagokoa izanik eta, ondorioz, desagertzeko zorian. Azken sailkapen horren arabera, bizirik dirauten hizkuntzen artean % 32 Asian kokatzen dira, % 30 Afrikan, % 19 Ozeano Barean, % 15 Ameriketara eta soilik % 3 Europan.

Aurreko datuak azterturik, berehala antzeman daiteke munduan zehar barreiatuak dauden hizkuntz komunitate horiek oso egoera linguistikoki desberdinetan aurkitzen direla –esan beharrik ez dago hizkuntz komunitateen egoera ekonomikoak ia alderaezinak direla– eta desagertzeko zorian dauden hizkuntzen kopurua oso handia dela. Horregatik, besteak beste, hizkuntzen iraupena lortzeko xedez, zientzialari-talde bat baino gehiago dago munduan zehar (*Symposium about Language and Society*¹², Texasko Austingoko Unibertsitatean, *Foundation for Endangered Languages*¹³, Bathen, Ingalaterran...) halaber instituzioek sortutakoak (Europako Batasunaren menpe dagoen *European Bureau for Lesser Used Languages*¹⁴, esaterako), komunitate bakoitzeko militanteez gain, noski. Afera horiez kezkatutako zenbait Gobernu Kanpoko Erakundek, Bartzelonan bilduta 1996ko apirilean, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sinatu zuten¹⁵, zeinaren bidez mundu-mailako bake linguistikoa bultzatu nahi den. Deklarazioan aipatzen denez, hizkuntza bakoitzaren egoera hainbat faktoreren eraginez ondorioa da, eta faktore horien artean ekonomikoak bereziki aipagarriak dira.

Gogoratu beharrekoa da aipatutako milaka hizkuntza horietatik gehienek, oso hiztun kopuru txikia dutela eta, oro har, kodifikaziorik eta erabilpen idatzirik gabekoak direla. Europako hizkuntza gehienek, ordea, hiztun-kopuru urrikoak izanik ere, erabilpen idatzia izan dute, eta irakaskuntzan nolabaiteko presentzia eduki izan dute historian zehar. Horri esker, hizkuntza horietako hiztunek beren hizkuntza-erabilpen-maila altua dute, nortasun-adierazgarri moduan hartzen baitute.

Hizkuntza gutxitu gisa zer ulertzen den azaldu beharko dugu jarraitu aurretik. Badaude beste zenbait termino hizkuntza horiek izendatzeko: minoritarioak, eskualdekoak (erregionalak), gutxiago erabiliak (beste batzuk baino), eremu urrikoak. Lan honetan, hizkuntza gutxituaren kontzeptua erabili da (gaztelaniarazko *lengua minorizada*), “gutxitu” izenondoak egoera historiko baten ondorioz gertatutako fenomeno bat adierazten duelako, hain zuzen, lehenago gutxiengoarena ez zena, hainbat arrazoiengatik, oraingo egoera gutxiengotura pasatu izanaren fenomenoa. Eremu urriko hizkuntza adierazteko, ingelesezko literaturan gehien erabiltzen den terminoa *lesser used language* da eta, frantsesezkoan, berriz, *langue moins repandue*; hizkuntza gutxitua adierazteko, berriz, ez dugu uste itzulpen zuzenak direnik *minority language* edo *langue minoritaire*, uste baitugu hizkuntza minoritarioez baino gehiago hizkuntza minorizatuek edo gutxituek hitz egin behar dugula. Horregatik, esan bezala, hemen normalean erabiliko den terminoa hizkuntza gutxituarena izango da.

12. <<http://www.utexas.edu/students/salsa/index.html>>

13. <<http://www.ogmios.org>>

14. <<http://www.eblul.org>>

15. *Declaración Universal de derechos lingüísticos*, Comité de seguimiento, Bartzelona, 1998.

Gure helburuen artean euskararen eta ekonomiaren arteko inplikazioak azterzea badago, ikerketa konparatzailea egin nahi izanez gero, nolabaiteko egoera parekagarrian dauden hizkuntzak eta hizkuntz komunitateak aztertzea mugatu beharko dugu. Hori dela eta, gure esparrua Europara mugatzeak zentzuzkoa dirudi ondoko arrazoiengatik: antzeko egoera sozioekonomikoa Europako Batasunaren barruan, politika alderagarriak, neurri bateratuak hartzeko aukerak, hitz batean, esparru homogeen batean kokatutako hizkuntz taldeak izatea.

Egoera gutxituan diren Europako hizkuntzak aipatzen direnean, bi mota bereiz ditzakegu. Alde batetik, badaude zenbait hizkuntzako hiztun-komunitate gutxituak, baina hizkuntza hori bera beste nonbait egoera normaldu batean dagoelarik, adibidez, Italiako ipar-ekialdean bizi den esloveniar komunitatea edo Alemaniako iparraldeko komunitate daniarra; *lurraldez kanpoko estatu-hizkuntza* gisa adieraziko ditugu. Beste aldetik, eremu jakin batean soilik mintzatzen diren hizkuntza gutxituak daude (*endemiko* hitzaz adieraz genitzakee-nak), euskara edo galesera bezala; azken horiek dira berez hizkuntza gutxitu gisa ulertzen ditugunak.

Bi mota horietako hizkuntz komunitateak 62 dira guztira Europako Batasunean¹⁶, baina guk hizkuntza gutxitua bigarren motakoari soilik deituko diogu, François Grinen (1990) definizioaz baliatuz:

Hizkuntza gutxitu bat (*minority language*, jatorrizkoan) emandako eremu geografiko bateko biztanleriaren erdiak baino gutxiagok mintzatzen duen hizkuntza da; definitzotik kanpo utzita beste eremu batzuetan gehiengoaren hizkuntzak direnak (lurraldez kanpoko hizkuntzak).

Lehen motakoen, hau da, lurraldez kanpoko hizkuntza gisa aipatu ditugun egoera eta ezaugarriak desberdinak izanik, gure interesetatik urrunago geratzen dira. Hain zuzen ere, horrelako hizkuntz taldeek, nahiz eta beren eremuetan gutxituak izan, hizkuntzaren baliabide ugari dute eskura (liburu, hedabide, eta antzekoak), hizkuntza hori beste eremu geografiko batean normalizatuta baitago, gehienetan Estatu bateko hizkuntza ofiziala baitira.

16. EBLUL (European Bureau for Lesser Used Languages, <http://www.eblul.org/>) erakundearen arabera, Europako Batasuneko eremu urriko hizkuntzak hauek lirateke, estatuz estatu:

Alemania: daniera, frisiera, sorbiera

Austria: kroaziera, txekiera, hungariera, eslovakiera, esloveniera, romaní

Belgika: alemana, luxenburgera, oil

Danimarka: alemana

Erresuma Batua: kornikera, gaelikoa, gaelera, scots, galesa

Espainia: aragoiera, asturiera, euskara, katalana, galiziera, okzitaniera (aranés)

Finlandia: romani, errusiera, laponiera, suediera, tatar

Frantzia: euskara, bretoiera, katalana, korsikera, nederlandera, alemana, luxenburgera, okzitaniera, oil

Grezia: albaniera, aromaniera, bulgariera, mazedoniera, turkiera

Herbehereak: frisiera, behe-saxoiera

Irlanda: gaelera

Italia: albaniera, katalana, kroaziera, frankoproventzala eta frantsesa, friuliera, alemana, greziera,

ladinoa, okzitaniera, sardiniera, esloveniera

Luxemburg: luxenburgera

Portugal: mirandesa

Suedia: finlandiera, laponiera, romani

Beraz, gorago aipatu den zentzu hertsian hartzen badugu hizkuntza minorizatu edo gutxituaren kontzeptua, eta Europako Batasunera mugatu, ondoko hamazazpi kasuak ditugu: luxenburgera-lëtzebuergesch Luxenburgon, gaelera-gaeilge, Irlandan; gaelikoa-gàidhlig, Eskozian; galesa-cymraeg, Galesen; ladinoa-ladin eta friulera-furlan, Italiako iparraldeko Ladinia eta Friul eskualdeetan; bretoiera-brezhoneg, Britainian; okzitaniera-occitan, Okzitanian; korsikera-corsu, Korsikan; frisiera-frasch, Frisian; sardiniera-sardu, Sardinian; laponiera-sámegiella, Laponian; katalana-catalá, Katalunian, Valentzian, Baleareetan eta Rossellón; galiziera-galego, Galizian; asturiarra-bable, Asturiasen; aragoiera-aragonés, Aragoian; eta euskara Euskal Herrian. Horietaz gain, kasu bereziak dira kornikera-kernevek (Kornualleko hizkuntza), galduta egon ondoren berpizte-prozesuan da-goena 200 hiztun berriekin¹⁷, eta ijitoen romani izeneko hizkuntza, bere aldaera guztiak Europan zehar barreiatuta (erromintxela, caló, bohemien, eta abar).

Halaber, argi utzi nahi dugu ez dugula eztabaidarik sortuko hizkuntzen eta dialektoen arteko diferentziaren inguruan. Azken finean, mintzaira bat hizkuntza ala dialektoa den erabakitzea erabaki politikoa izan daiteke (Siguan 1996), bere estatusa horren ondorioz baldintzaturik gera daitekeelako; edozein modutan, erabaki politikoa edo zientifiko-linguistikoa izanik, eskuarki onartutako hizkuntz zerrendak erabiltzea da aukeratu den irizpidea.

Azkenik, ez dugu aurrera jarraitu nahi Quebeceko kasuari buruzko zehaztapen batzuk eman gabe. Lanerako esparrua mugatzeko hartutako irizpideen ondorioz, Kanadako Quebecen frantsesaren eta ingelesaren arteko gatazka historikoa gure ikerketaren ardatzetik kanpo dago: frantsesa Quebecen lurraldez kanpoko hizkuntza delako eta, gainera, ez Europakoa. Baina kasu hori hemen aipatzen bada beste arrazoi nagusi bategatik da: hain zuzen, egoera diglosikoetan ekonomi munduarekin lotutako arazoak sistematizatzen lehenak izan zirelako hango ikertzaileak.

Orain dela hamarkada gutxi arte, eta azterketa sinpleegia izateko arriskuz, esan daiteke Quebecen ondoren azaltzen den egoera bizi zela: frantses hiztunak gehiengoa izanik, gutxiengo anglofonoak egitura sozioekonomikoaren lekurik hoberenak betetzen zituen (enpresetako zuzendaritza, administrazioaren ardurako postuak eta sektore publikoko goi-karguak); frankofonoek, ordea, kalifikazio txikiko postuak betetzen zituzten, industrian eta nekazaritzan bereziki, eta diru-sarrerara txikiagoak lortzen zituzten. Ikerketa gehienak talde linguistiko bakoitzeko kideen sarrerak eta produktibitatea aztertzean zentratu ziren, eredu teoriko desberdinak erabiliz: sareen teoria, kapitalaren jabeen estrategiak, lan-merkatuko partaideen arteko komunikazio-hesiak. Oraindik ere, elebitasunaren ondorio ekonomikoak aztertze saio nagusiak Quebecen egiten dira, eta lan horiek aparteko arreta merezi dute, batez ere beren aitzindaritasunagatik.

5. Hizkuntza gutxituak aztertzeo ikerketa-lerro berriak

Aurreko puntuan egin den aurkezpenean, hizkuntzak, oro har, Teoria Ekonomikoan jokatzeko duen papera azaltzen da, ideologia eta lan-esparru desberdinez

17. 4.000 hiztun, Tellabideren arabera.

egindako ekarpenen arabera. Gurea bezalako hizkuntz komunitate batentzat interes biziagoa du zientzia ekonomikoak hizkuntza gutxituen inguruan egindako hausnarketa-multzoak. Dena den, bibliografia arakatzuz, gai urrun samar eta sakabanatuak jorratzen direla ikusirik, ildo nagusiak zein diren aipatuko dugu, berrikuspen bibliografikoa hurrengo lan baterako utzita.

Hizkuntza gutxituen eta ekonomiaren arteko erlazioak aztertzeke hainbat arlo har ditzakegu. Guk horietako sei aukeratu ditugu, gaiaren osotasuna aztertzeke, horietako ikuspegi bakoitzak ekar lezakeena zehaztea bide aproposa delakoan. Zazpigarren puntu batean geratuko lirateke bestelakoak. Beraz, ondoren agertzen den zerrenda osatu dugu, ikerketarako lan-ildoak mugatu nahian¹⁸:

- 1.- Ikuspegi historikoa: garapen ekonomikoa eta hizkuntza gutxituen atzerakada.
- 2.- Ikuspegi sozioekonomikoa: klase sozialak eta hizkuntz taldeak.
- 3.- Teoria ekonomikoaren ikuspegia: hainbat ekarpen teoriko.
- 4.- Egitura ekonomikoaren ikuspegia: hizkuntza, sektore ekonomiko gisa.
- 5.- Jarduera ekonomikoaren alorra: hizkuntzen erabilera lan munduan.
- 6.- Administrazioaren zeregina: hizkuntz politikaren baliabideak.
- 7.- Bestelakoak.

Horietako puntu batzuk elkarren artean loturik egon daitezke. Ez hori bakarrik, gehiago zerrendatu genitzake horien arteko gurutzaketak eginik. Adibidez, eskualde bateko biztanleen hizkuntz gaitasuna eta bertan ezarritako hizkuntz politika kanpo-inbertsioetarako erakargarri ala aldaragarri gerta daitezke (aurreko 1, 5 eta 6 atalak ukituz), edota goi-klasearen hizkuntz jarrerak hizkuntzen erabilera baldintza dezake lan-munduan (2 eta 6 atalak ukituz). Antzera, hizkuntza gutxituen eta ekonomiaren arteko beste hainbat eta hainbat lotura bila genitzake, baina, gure iritziz, aurreko seiak har daitezke ikerketarako oinarritzeko esparru moduan.

Badaude, beraz, hizkuntza gutxitu gisa ulertzen ditugunak harturik, eta ekonomiarekin duten erlazioari lotuta, mugatu ditugun sei ikerketa-atal. Ondoren azalduko dugu zergatik aukeratu dugun horietako bakoitza eta zer ezaguera emango digun horietako bakoitzaren azterketa sakonak. Esan beharra dago ikus-puntu orokor batean egindako planteamendua dela, hau da, Europako hizkuntza gutxitu guztiei dagokien ikerketarako proposamena izan daitekeela.

5.1. Ikuspegi historikoa: garapen ekonomikoa eta hizkuntza gutxituen atzerakada

Garapen ekonomikoak eta berari lotutako lehiakortasunak zenbait ezaugarri dituzte uztarturik, horien artean enpresen mozkinak gehitzeko helburuaz kapitala eta eskulanaren mugimendua errazteko joera. Horrek esan nahi du hizkuntza ba-

18. Gorago esan bezala, Grinek (1995) bederatzi puntuko zerrenda proposatzen du, baina euskararen egoeratik abiatuz, hemen aurkeztutakoak eraginkorragoa dirudi.

karreko herrialde askotako komunitateek beren hizkuntz egoera aldatu behar izan dutela bertan sortutako edo kokatutako enpresa berrietan lan egitera iritsitako etorkin-kopuru handiak direla eta. Etorkin horiek bi eratakoak izan daitezke: atzerriko kapitaldun enpresa multinazionalak zuzendaritza-taldeak, atzeritarrez osatuak, alde batetik, eta kanpotik etorritako eskulan merkea, bestetik.

Noski, horrelako prozesua ez da toki guztietan gertatu: herrialde eta nazio askok beren egitura eta sare ekonomikoak garatu dituzte inolako hizkuntz aldaketarik gabe. Zein da arrazoa, orduan, zenbaitetan garapen ekonomikoaren ondorioz hizkuntza batek beste bat ordezkatzeko? Lehen arrazoi gisa esan genezake menperatze ekonomikoak bere eredu desberdinetan (kolonialismoa, zentralismoa...) erasotutako nazio eta komunitateetan hizkuntz aldaketa bultzatzen duela. Azken finean, hori ez da arazo ekonomikoa soilik, arazo politikoa ere bada¹⁹. Arazoa da nola bermatu munduan zeharreko nazio eta herrien eskubide politiko, ekonomiko eta linguistikoak.

Dena den, menperatze politiko zuzena egon ala ez, garapen ekonomikoarekin batera hizkuntz ordezkapena gertatu izan da hainbat lekutan. Egoera desberdinen artean gaude: zenbait hizkuntzak nahiko ondo erantzun ahal izan diote erasoari, egoera hobereanean egon ez arren, eta beste batzuek atzerakada ia itzulezina jasan dute, irauteko baldintza hobeak edukita ere. Goi-klasearen (burgesiaren) jarrera garrantzi handikoa da hizkuntzaren auzi honetan, ondoko bi arrazoiengatik: jendeak, oro har, goi-klasearen eredia ikus baitezake jarraitzeko bide gisa, eta kanpoko enpresetako buruzagi etorkinek bertako nagusien artean lekua bilatu nahi izango dutelako.

Nazio bati, bere hizkuntzaren jarraipena ziurtatzeko aitzakiaz, garapen ekonomikoaren prozesuetatik alde egitea proposatzeak ez dirudi oso errezeta egokia. Edo aukera moral zabal baten aurrean gaude, bestela: ona al da garapen ekonomikoa? Ona al da hizkuntzen iraupena? Bi galderen erantzunak baieztokoak badira, garapen ekonomikoa eta hizkuntzen iraupenaren artean aukeratu beharreko kasuetan, nork aukeratu behar du lehentasuna zeini eman? Argi dagoena zera da: gaur egungo unibertsalizazio-prozesua mehatxu itzela dela eremu urriko hizkuntzentzat.

5.2. Ikuspegi sozioekonomikoa: klase sozialak eta hizkuntz taldeak

Talde linguistikoak gizarte-taldeak dira eta, horregatik, hizkuntz taldeen arteko harremanak klase arteko harreman gisa azter daitezke. Hots, talde linguistikoaren artean sortuko dira bereizketak soldata, lan-mota, jabegoa, bizi-maila eta abarretan. Ikerketa soziolinguistikoek lagunduko digute horrelako analisi bat osatzen.

Era berean, hizkuntzak ezagutzeak paper handia jokatzeko du gizarte barneko mugikortasunean. Mugikortasun-faktoreak garrantzi berezia hartuko du hizkuntz taldeen arteko desberdintasunak esanguratsuak direnean, bere estatusa hobetu

19. Fishmanek (1989) bertako hizkuntzaren eta kanpotik etorritakoaren arteko gatazkaren balizko erresoluzioen azterketa egiten du, gatazka horretan parte hartzen duten faktoreen eraginak kontuan hartuta.

nahi duenak, hobeto kokatutako taldearen hizkuntz eredua hartuko baitu. Alor honetan talde desberdinetako partaideek dituzten aurreikuspenak adierazgarriak izango dira: haurren eskolatzean gurasoek egindako hizkuntz aukera, aukera horretako arrazoiak, etorkinen integrazioarako hizkuntz beharrak, eta abar. Horrelako aldagaien bidez, hizkuntza bakoitzaren prestigio-maila mugatzen joateko modua izango dugu; ahaztu gabe, aurreko puntuan aipatu den moduan, hizkuntza baten prestigioa goi-klasearen jarrerari lotuta dagoela, hau da, hizkuntz egoeraren aldagai bat komunitatearen buruzagitzaren jokabidea dela.

5.3. Teoria ekonomikoaren ikuspegia: hainbat ekarpen teoriko

Ekonomia teorikoak Hizkuntzalaritzarekin izan duen harremana oso oparoa ez bada izan, ulertzekoa da Teoria ekonomikoak eskaintzen dizkigun eruedetan hizkuntza gutxituen faktorea gutxitan aztertu izana. Ekarpen horien zerrenda egitekotan, hiru autoreren izenak azpimarratu nahi ditugu: Toussaint Hocevar, Conrad Sabourin eta François Grin.

Lehenengoak 1975ean argitaratu zuen “Equilibria in Linguistic Minority Markets” artikuluan, eredu mikroekonomiko klasikoetan oinarrituz, hizkuntza nagusiak eta gutxituak sortzen dituzten bi merkatuen arteko oreka nola mugatzen den aztertzen saiatu zen, hiru ikuspuntu desberdinetatik: kontsumitzailearen oreka, ekoizlearen oreka eta langilearen oreka. Ekarpen teoriko gisa lehen mailako kontribuzioa iruditzen bazaigu ere, lortzen diren emaitzak datu empirikoekin ez datozela bat iruditzen zaigu, euskararen kasuan eta ekoizlearen orekari dagokionean behintzat.

Bigarrenak 1985ean “La théorie des environnements linguistiques” argitaratu zuen eta, bertan, ordura arte askotan ikergai izandako Quebeceko lan-merkatua oinarritzat hartuta, langileengan lanpostuen ingurune linguistikoaren eraginaren ondorioak eredu teoriko baten bidez azaltzen dira, tresna matematiko sakonez lagunduta. Lan horren ondorio nagusia da ingurune linguistikoak garrantzia eduki dezakeela zenbait lanpostu betetzen dituzten langileen produktibitate-mailan, langilearen hizkuntz gaitasunaren arabera. Langilearen poza areagotu egiten da bere hizkuntzaren erabilera bermatzen dion ingurunean²⁰. Aurrekoaren ondorioz egileak frogatutzat ematen du hizkuntza bateko elebakarrek beste hizkuntzako elebidunek baino soldata txikiagoak, berdinak edota handiagoak eduki ditzaketela, horretarako enplegatzaileen jarrerak zerikusirik eduki behar izan gabe.

Eredu ekonomiko klasikoaren tresna, modurik oparoenean erabili izan duena François Grin da. Ez hori bakarrik, eredu baten planteamendu intuitiboa plazaratu ondoren, geroago jarraipena eman izan dio eredu berari sofistikazio berriak erantsiz. Teoria marjinaletan oinarritutako eruedez gain, merkaturatze- eta marketing-esparruetako garapen teorikoak ere egin izan ditu. Hizkuntza gutxituen egoera aztertzeko teoria ekonomikoaren baliagarritasuna proposatzeko ikerketa-jardueraren maisu nagusitzat har dezakegu.

Bestetik, aipatu beharra dago hizkuntzaren ekonomia deitu daitekeen atal teorikoan ere eztabaida sakonak sortu izan direla. Horrela, H.G. Johnson, Albert

20. Egilearen arabera, salbuespenak lirateke hizkuntza arrotza erabiltzea nahiago dutenak, edo hizkuntza hori ikasi nahi dutelako, edo prestigio gehiagokoa dela uste dutelako.

Breton eta Jean-Luc Migué egileen lanak²¹ teoria neoklasiko erradikaltzat jo izan ditu Marc Lavoie ekonomialariak (1982): «Ces auteurs représentent la quintessence de ce qu'a pu dire l'économie néo-classique sur la langue et le nationalisme», eta haien ereduak Modéle JBM izenaz aipatzen du: «modéle qui constitue une version extrémiste de la théorie généralement admise et utilisée par les économistes contemporains».

Lavoieren ustetan, eta Quebeceko kasuan, ingelesdunek ez dituzte lanposturik hoberenak eskuratu eta, bide batez, gizarte-maila gorenera iritsi, gehiago balio dutelako edota irakaskuntza bidez giza kapital aberatsagoa lortu dutelako (Bretonen lanetan suposatu bezala), baizik eta oinarri historikoak dituzten segregazio-, diskriminazio- eta nepotismo-politikaren ondorioz. Lavoieren ustetan, neoklasikoen mundu utopikoa utzi eta ekonomia humanistaren bidez egin behar dira gai horri buruzko hausnarketa teorikoak.

Aurreko adibideaz adierazi nahi izan dugu ekonomi eskola desberdinen arteko eztabaida zaharrek badutela isla hizkuntzarekin lotutako teoria ekonomikoaren ekarpenetan ere, eta horrek agertzen duela ezagupen-arlo horren dinamismoa.

5.4. Egitura ekonomikoaren ikuspegia: hizkuntza, sektore ekonomiko gisa

Har dezagun hizkuntza aldagai makroekonomiko gisa eta, orduan, aldagai horrek nolabaiteko garrantzia edukiko du Barne Produktuan. Garrantzi horren neurketa monetarioa interesatzen zaigu, hizkuntzaren inguruan diharduen sektorea mugatzeko. Horrelako neurketa bat egiteko orduan topa ditzakegun arazoak atal berezi batean aztertuak izango dira aurrerago.

Gaur egun euskarak duen garrantzia ukaezina da, urtero haren inguruan fakturazio esanguratsua egiten da eta hainbat lanpostu sortu. Hizkuntza gutxituen egoera eta osasuna neurtzeko, horrelako analisiak egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu, ahal izanez gero, inguruan duten hizkuntza nagusiek beren inguruan sortutako sektorearekin alderatuz.

5.5. Jarduera ekonomikoaren alorra: hizkuntza desberdinen erabilera lan-munduan

Giza alor guztietan erabilia izateko, hizkuntza baten ahalmena ezinbestekoa da hizkuntza horren iraupena eta jarraipenerako, eta gizarte-harremanen alor guztien artean garrantzizkoenetakoa lan-mundua da.

Orain arte aipatu diren hainbat arrazoi direla medio, hizkuntza gutxituen kasuan lan-mundua da erabilpen urrienetakoa duten eremuetako bat. Hori hala izateko arrazoiaren artean ondoko hauek egon daitezke: garapen ekonomikoak bultzatutako hizkuntz ordezkapena, lan-teknologia berriak eta horiei lotutako irakaskuntza, hizkuntza gutxituen estandarizatzeko beharra, eta abar. Lan-munduak dituen zailtasunengatik, bera izaten da azkenetakoa eremu urriko hizkuntzak sustertzeko politikak diseinatzen direnean, baina edozein hizkuntzaren berreskurapena ezinezkoa da lan-mundua ahazten bada. Ez bakarrik hizkuntzaren normali-

21. Ikus, esaterako, Breton eta Mieszkowski (1977).

zazioa erabat burutuko ez delako, baizik eta normalizazioa bera ere ezinezkoa delako: hau da hautsi beharreko sorgin-gurpila.

Lan-mundua zatitzeko ezintasuna da hizkuntzen erabilpena ziurtatzeko zailtasunik handienetakoa. Kultur mundua, hezkuntza-sistema eta antzekoak, zein hizkuntzatan dauden kontuan harturik, azpisektoretan zaitu daitezke, baina lan-sektorea, oro har (industria, merkataritza, zerbitzuak...), ezin da hizkuntzaren arabera bereizi. Hau da, lan-mota berdinean (lantegi, bulego, denda berean) hizkuntza gutxitua eta hizkuntza nagusia elkarrekin bizi dira eta, normalean, hizkuntza nagusia izango da homogeen bihurtuko dena. Beste era batera esanda, lan-sektorean hizkuntza gutxitua normaltzeko zailtasunik handiena hizkuntza nagusiko langileriak hizkuntza gutxitua erabiltzeko duen ezintasuna da.

Lan-munduan hizkuntza gutxituak erabiltzeko beste eragozpen bat izan daiteke aukera hori bermatzeko sektore produktiboan birmoldatze bat beharrezkoa suertatuko dela, ez bakarrik langileriaren trebakuntzaren aldetik, baita dokumentu, argitalpen, idatzitako materiala eta softwarearen itzulpen eta egokitzeagatik ere. Horrek guztiak kostu gehigarriak sortzen dituenez, enpresen errentagarritasuna murriztagoa izango da. Kontuan hartu behar da egokitzapen-prozesu hori garesti-agoa dela hizkuntz gutxituetan egiten denean, haien normalizazio faltagatik: erabilgarri dauden programa informatikoak, edo bulegorako material eta antzekoetarako alde aurretik prestatutako dokumentazioa hizkuntza gutxituetan eskuragarri egotea oso zaila baita.

Hizkuntza gutxituen erabilerak eskainitako ondasun eta zerbitzuetan eduki dezakeen balio erantsiak egin dezake errentagarri haren erabilpena enpresan, baina baita erabilera horrek enpresaren jardueran sor dezakeen laneko giroak ere. Hau da hizkuntza gutxituetako komunitateek lortu beharreko helburua: beren hizkuntzak errentagarri bihurtzea produkzio-sisteman, ez bakarrik azken ekoizpenari begira, baizik eta baita ekoizpen-prozesu guztian ere.

5.6. Administrazioaren zeregina: hizkuntz politikaren baliabideak

Gobernuek hizkuntzei lotutako gastu jakin bat egiten dute, eta gastu horrek alde kuantitatibo bat du (gastuaren zenbatekoa, bere balio erlatiboa gastu publikoaren eta Nazio Produktuaren baitan), eta alde kualitatibo bat (nola banatzen den eragindako gastua, zer nolako eragina duen, besteak beste).

Herri-erakundeek hizkuntzarekiko hartutako jarrera hizkuntz politikaren bitartez neur daiteke edo, beste modu batez esanda, hizkuntz arazoekiko administrazioaren eskuhartzea herriaren borondatearen adierazle gisa har daiteke. Esku-hartze hori administrazioaren gastuari lotuta agertzen da, eta bere alde kuantitatiboaz gain, bere eragin kualitatiboak ere berebiziko esanahia du.

Gastu publikoaren banatze-modua hizkuntz talde bakoitzaren eragiteko ahalmenaren adierazlea izango da, alegia, hizkuntz komunitate bakoitzak herri-ordezkaritzan duen indarraren neurgailua da. Azken hori orain artean esandakoarekin lotuta dago: gizarte-klase bakoitzak bere ordezkartza du, bere indarra eta, ondorioz, bere ahalmena herri-ekimenetan parte hartu ahal izateko.

Ez hori bakarrik, hezkuntza sarean, telebista-ekoizpenean edota argitarapen-eta zinema-ekinbideei lotutako hizkuntz politikaren diru-laguntzak banatzeko moduek eragin jakin bat edukiko dute gizarte horretako produkzio-sisteman, hala arlo pribatuan nola publikoan. Eragin horien arteko desberdintasuna ez dator soilik eragindako jendetzaren kopuru eta jatorriagatik, baita azpiegitura ekonomikoa (hezkuntza-laboretegiak, biblioteka-sarea, telekomunikazio-sareak...) eraldatua izan daitekeelako ere.

Horri dagokionez, garrantzitsua da datu soziolinguistikoak edukitzea, erabaki publikoak hartzeko orduan, talde linguistiko bakoitzaren indarra neurtu ahal izateko, talde linguistikoa gizarte-klase gisa hartzen ari garenean.

5.7. Bestelakoak

Aurrekoez gain, beste zenbait ikerketa-gai egon badaude, eta horien aipamen labur bat besterik ez dugu egingo.

5.7.1. Ikuspegi geoekonomikoa: hizkuntz espazioak eta espazio ekonomikoak

Zenbaitetan gertatzen da hizkuntza bera duten eskualdeen artean (gure kasuan, hizkuntza gutxitu bera duten eskualdeen artean) espazio ekonomiko bateratua egituratu ohi dela, merkataritza-sare bakarra osatzeko garaian, hizkuntza komun hori konpartitzeak dakartzan abantailak direla medio.

Hizkuntza gutxituek, izenak adierazten duen bezala, erabilera mugatua dute gizarte alor desberdinetan eta, horien artean, bereziki, sektore ekonomikoan (merkataritza, zerbitzuak, industria, eta abar). Hizkuntza gutxitu bera erabil dezaketen agente ekonomikoen artean merkataritza- eta negozio-sare berezi bat sortu ahal izateak hizkuntza berari lotutako espazio ekonomiko baten eraketa suposa dezake. Helburu horretarako oztoporik handiena izan daiteke agente ekonomikoen trebetasuna beren arteko komunikazioetan hizkuntza gutxitua erabiltzeko, hizkuntzaren egoera ez estandarizatua dela eta, baina horri buruzko gogoeta gehiago hurrengo puntuan ikusiko ditugu.

Ziurrenik, hizkuntza gutxitu bakoitza oso egoera desberdinean egongo da horrelako espazio ekonomiko bat sortzeko aukerak bideratzeko orduan, eta horretan azterketa bereziak egin beharko dira: ez dira gauza bera Valentzian, Katalunian, Balearretan, Rosellon eta Andorran hitz egiten den katalanak dituen aukerak eta Irlandako zenbait herri txikitant mintzatzen den gaierak dauzkanak.

5.7.2. Kanpo-inbertsioen erakarpina: Erregio elebidunak eta inbertsioa

Pellenbargetik aztertu bezala, Frisiako hizkuntz politikak baldintza dezake bertan kanpo-inbertsioa erakartzeko ahalegina, gizarte-agenteek bete beharreko arau linguistikoak traba izan baitaitezke bertan kokatu nahi duen atzerriko enpresentzat. Eragin horretan hainbat faktore agertuko dira: hizkuntza gutxituaren erabilera bera, hizkuntz politikak ezarritako betebeharrak, inbertsio potentzialen sektoreen egitura, eta abar.

Ezaguna da Kataluniako Generalitateak Hollywoodeko zinema-ekoizleekin izandako tirabirak zinema-aretoetan eskaintako filmen portzentaje bat katalanez

izateko baldintzaren inguruan. Horren ondorioa izan daiteke areto berriak zabal-
tzeko garaian, zinema-multinazionalek eragozpenak jartzea, edo zinema-industria
Katalunian garatzeko inbertsio murrizagoak egotea.

5.7.3. *Teknologia berriak eta hizkuntza gutxituak*

Azken urteetan hizkuntz gutxituetako hainbat komunitatetan, horien artean
euskaldunean, teknologia berrietara egokitzeko saioak egiten ari dira, etorkizune-
ko gizarte-ereduetan komunikazioak edukiko duen papera ez dadin mehatxu
gehigarri bihurtu. Egokitze eta garatze alor honetan inbertsio espezifikoak
bideratzen ari dira, eta haiek gero erabiliko direla ziurtatzea helburu berria da, eta
horretan sare ekonomikoaren agenteek ere malgutasuna erakusteko ardura hartu
beharko dute.

Bibliografia

- Breton, R. (1983): *Géographie des langues*, Presses Universitaires de France, Paris.
- Breton, A., Mieszkowski, P. (1977): "The Economics of Bilingualism", *The Political Economy of Fiscal Federalism* (W. Oates, ed.), 261-273 orr., Lexington Books, Lexington.
- Casson, M. (1996): "Economics and Anthropology - Reluctant Partners", *Human Relations*, 49. bol., 9. Zkia., 1151-1180 orr.
- Chaudenson, R., Robillard, D. (1990): *Langues, économie et développement*, Institut d'Études Créoles et Francophones, Université de Provence.
- Coulmas, F. (1992): *Language and Economy*, Blacwell, Oxford.
- Daoust, D. (1991): "Terminological change within a language planning framework", *Focuschrift in honor of Joshua A. Fishman on the occasion of his 65th. birthday* (Marshall, D., Fishman, J., eds.), 281-309 orr., John Benjamins, Amsterdam.
- Flatharta, P. Ó. (1995): "Business and Management Education in Lesser used Languages", *Economic Development and Lesser Used Languages: Partnerships for Action*, Cwmni Iaith, Aberaeron, Dyfed.
- Fishman, J.A. (1989): *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*, Multilingual Matters, Clevedon.
- Grin, F. (1990): "The Economic Approach to Minority Languages", *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 11, 153-174, Pergamon Press, Oxford.
- , (1995): "Minority Languages and Regional Economic Development: Resources and Priorities", *Economic Development and Lesser Used Languages: Partnerships for Action*, Cwmni Iaith, Aberaeron, Dyfed.
- Lavoie, M. (1982): "Bilinguisme, langue dominant et réseaux d'information", *L'Actualité Économique*, 38-60.
- Levy D.M. (1997): "Adam Smith's rational choice linguistic", *Economic Inquiry*, 35. bol. (3), 672-678.
- Malhotra, N.K., Agarwal, J., Peterson, M. (1996): "Methodological issues in cross-cultural marketing research. A state-of-the-art review", *International Marketing Review*, 13. bol., 5. zkia.
- Marschak, J. (1965): "Economics of Language", *Behavioral Science*, 10, 135-140.
- Ninyoles, R. (1975): *Estructura social y política lingüística*, Fernando Torres (ed.), Valentzia.
- Rossi-Landi, F. (1983): *Language as work and trade. A semiotic homology for Linguistics and Economics*, Bergin and Garvey Publishers, Massachusetts.
- Sánchez Carrión, J.M. (1991): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de recuperación del Euskara y Teoría de las lenguas*, Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" eta "Adorez eta Atseginez" Mintegia, Donostia.

Siguan, M. (1996): *La Europa de las lenguas*, Alianza Universidad, Madril.

Tellabide, J. (1990): *Europa, etnia eta herriak. Europa 123 herritan zatitua, lurralde izena, biztanlegoa, hiztunak eta herri gutxiengoak erakutsiaz*, DL-SS-1042/91, Donostia.